

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

284n. zenbakia
maiatza 2003



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ORDUÑA

ANTIGUAKO ANDRA MARI

JAUNAREN ERRIAN ASKE TA BARDIN

Ainbeste zapalkuntza egoan lurtean, ezbardintasanak kendu ta anaitasunez bizi al izateko, Moisesek emon zituan legeak aztertutea gauza egoki ta ardura aundikoa da. Anaien artean alkar onartu ta ezbardintasanak kentzea izango litzake gauza egokia ta elburu bidezkoa.

Benetan, iñoren izerdien xurgari ta ondasunen bereganatzaile iñork ez leuke izan bear, ta zoritxarrez, munduko giza-anaidia saminduta dauka norberekerizko jokabide onek.

LURRA

Lenengo ta bein, lur banatzearen gora-beran, Moises ardura aundiz ibili zan. Jaungoikoak Moisesi itz egin ta esan eutsou... Gizonei diran aiñean, erentzi bezela, lurra banatu-ko deutsezu.

Geiago diranei parte aundiagoa ta gitxiago diranei parte txikiagoa.

Zentso edo zenbatzaren eran, baktzak bere erentzi edo ondarea artuko dau, baiña banatzea zozketaz egingo dozu. Znb,26,52-55.

Lurrak banandu ondoren, lurren banaketa au, gauza bidezko, zuzen ta santutzat artu bear litzake. Auxe da benetan, Jaungoikoaren guraria giza- seme- alaba guztien alde, bera bai-da guztien Aita... Zure Jaun Jaungoikoak emoniko lurretan, arbasoak jarri zituen mugariei, ikuturik ez dauzazue egingo. Zn I9, I4... Urko lagunaren mugariak aldatzen dituana, zorigaiztokoa izango da. Dt, 27, I7.

Zuzentasun onetarako, lurrik saldu ezin al izatea, garrantzi aundiko gauzea da.

Lurra nerea da-ta, lurrak betirako ezin leitekez saldu. Ab. 25,23.

Baserritar batek edozein esturaldi dala-ta, dirua bear badau, lurra saldu leike, baiña ez betirako. Urte batzuetarako errentan, emon leike bakarrik. Ab, 25, 23-28.

JUBILEOA

Berrogeta amar urtetik berrogetamarrera urte santua, Jubileo urtea jarrita egoan. Urte orretan ondasun banaketa barria egiten zan. Erositako lur guztiak lengo ugezabarengana, ezer ordaindu barik, atzera biurtzen ziran. Ab, 25,8-I7.

ZAPATU-URTEA

Urte Santuaz gaiñera, zazpi urtetik zazpi urtera Larunbat urtea ospatzen zan. Ta orduan zor guztiak parkatu, bear ziran.

Ta olan, ondasunak gitxi batzuen eskuetan ezin pillatu eikezan, geientsuenen galtze ziurragaz. Dt, I5,2-4.

BEARTSUAK

Jaungoikoak ez dau askatasunik kentzen, ta gizonak bere norkeri maltzurra dala-ta, beti ez zituan ondo betetu bere Egilleak emoniko lege oneik. Jaungoikoak ba-ekian gizonen artean, beartsuak beti izango zirela lurtean. Dt, I5-II.

Jaungoikoak beartsuak, oroz goitik, maite ditu. Aitak ezin ikusi ditu ba semerik maiteen ta beartsuenak gal-zorian. Ori-gaitik dabil deika ondasundunei, aginpidedunei ta giza-diko beste jakintsuei ta edozein beste laguneri lurreko gose ta samiña urrindu daitezen munduko bere semeen gizarretik.

Negarrezko erbeste onetan beartsuak beti izango dira. Ori dala-ta, zure inguruan bizi diranekin esku-zabala izan zaite. Dt, I5, II.

LEGE BARRIAN

Jaungoikoa eten barik dabil, gizadiaren legeak itzartu ta biotza errukitu-erazo nairik.

Bere asmoa besterik ez da, gizonaren samiña kentzea baiño.

Berak izadia sortu eban ta lur ta itxasoaren ondasunetatik danak egoki bizi izatea nai dau.

Zure anaia txirotuten ba-da, ta laguntza eskatzen ba-dautzu, zure etxean artu egizu. Jaungoikoaren bildurra izan egizu ta zeugaz bizi dedilla anaia. Ab, 25,35,36.

Lege Zarreko agindu oneik, gero, Lege Barrian, Jesusen aginduekin indar-barrituta ta sendotuta dagoz, Jesus berberak esan euskun eran. Ni Testamentu Zarra kentzen ez nator, osotzen baiño.

BETI BEARTSUAK

Iru urtetik iru urtera uzta ta laboreak auzotar beartsueri emon bear eutseezan. Dt, I4,27,28., 26,II-13... Munduan ez dago ez erri ta ez laterririk beartsuen alde olako laguntzarik emon dauanik. Jaungoikoa ba, bere erriagaz, beti izan da errukiorra ta ezin dau zentzun gabeko zapaltzerik ikusi lurtean. Ta orrez goitik, munduko errialde batzuen urritasuna, gose ta iltea ikusirik, deika dago erri aberatsen ateetara, anaienganako dei larria egiten dau.

EURAI ONDAKINAK

“Zure alorrean garia ebagikeran, apurren bat aztuta izten ba-do zu, aren billa ez joan, arrotzarentzat, alargunarentzat ta ume-zurtzarentzat utzi egizu”. Onako irudi ederren bidez Jaungoikoak dei egiten deusku, gero, on egiñaren orde, betiko bizirako sari aundi bat eskeinirik. Dt, 24,I7-I9.

Olio ondoa batukeran, zeatz biltzen ez zaite ibili. Arrotzarentzat ta ume-zurtzarentzat itzi egizu. Izan egizu gogoa Ejipton jopu izan ziñela, orregaitik lege ori bete dagizula agintzen dautzut gaur.

Jaungoikoak biotz samurtasuna beste era batzuetara be agertu eban. Zuen lurretako garia batu dagizuenean, ez ebagi garia soloko ertzetaraiño, ezta ebagitean geratzen diran ondarrak batu be. Zure maastian be ez dozuz maats-ondarrak batuko, jausitako igaliak be ez dozuz zure baratzetatik jasoko, itzi egizuz beartsu ta arrotzarentzat. Ab, I9, 9-I0...

ALPERRAK

Baiña munduan ba-dira-lanik egin nai ez dabenak be. Berezkoa dan lez, arau oneik ez dira alperren alderako emon. Emen aitatu diran ondasun-laguntzak antolamen bat aztertuta bear geratu ez dedin.

Alperrentzat liburu santuak bere irakatsia emon dau. Noz arte egongo zara lotan nagi ori... Noz jagiko zara zure loalditik... Une bat lotan, une bat erdi-lotan, une bat etzunda, besoak lotuta. Bidazti bat lez etorriko jatzu bear gorria eta kea begientzat.

EUSKERAZAINTZA EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

ETA

EUSKERAZALEAK EUSKERA ERABILTEAREN ALDEKO ALKARTEA

www.orrirako

Ona emen aspaldion euskerearen alde lanean diarduen erakunde bi: Bata, Euskerazaintza Euskalerrri osorako eta bestea, Euskerazaleak, Bizkai'rako.

Euskerazaintzaren ama Kardaberaz bazkuna da. Bazkun au Gasteiz'ko Seminarioan sortu zan, Manuel Lekuona ta Josemiel Barandiran'en babespean eta lan aundia egin eben, baiña 36'ko guda zitalak irakasleak erbestera eroan ebazan eta ikasleak gudara.

Gero Franco'ren aginte gogorak ez eban iñoz alboratu euskerearen eta Euskalerrriaren aurkako ekintza, arik eta Gasteiz'ko seminarioa eta eleizbarrutia iru zati egin arte.

Baiña askoz geroago, 1965n. urte-inguruan Kardaberaz'tarrak barriro alkartu ziran Tolosa'n eta lan aundia egin eben batez be argitalpen-arloan. Batzarretan iñoz 100 bazkide baiño geiago batzen giñan.

1986n. urtean gure Lekuona, euskaltzain-burua, bere ardura onetatik kendu egin eben. Zergaitik? Eritxi ezbar-diñak alkartzeko lan aundia egin-ondoren, azkenean euskera batua eta atxea onartu ziralako. Aurretiaz zin eginda egozan batuzaleak eta apari baten ondo jan eta edan ondoren oiuka eta iraiñez, bazkiderik geienak ez egozala, erabagi zan Lekuona kentzea eta euskera batua onartzea. Batzar zatatsua ta aserre bizizkoa izan ei zan. Lekuona'ren orde z Villasante frantziskotarra ipiñi eben.

Amar urte geroago, 1978n. urtean, Euskaltzaindiak batzarra egin eban Bergara'ko seminarioan euskera batuak amar urte areitan lortu ebana aztertzeke.

Euskerazaintzakoak be an izan giñan eta konpoketa batera eltzeko bideak eskiñi genduzan, baiña dana izan zan alperrik, ez egoan atzera egiterik.

Gure alegiak alperrekoak zirala ikusita, Latiegi'tar

Bixente euskerazaintzakoak aurreratu zan eta onelantxe agertu eban arazoa: Zuek euskera batuaren euskaltzaindia zaree, baiña gu lengo Euskaltzaindiaren bidetik goaz, erri-euskerearen eta euskalkien alde eta atxearen aurka, orregaitik, lengo Euskaltzaindiari zintzo jarraituko dautson akademi barria sortuko dogu.

Urte beratan izan zan Kardaberaz'tarren batzarra Tolosa'n, Lekuona be geugaz zala eta 100 bazkide baiño geiago alkartuta.

Lekuona'k berak esonatu eban Euskaltzaindiari "expediente" bat atera bear jakola eta, beste alde batetik akademi barria sotzeko bidea artu zala esanda egoan. Orreik izan ziran artutako erabagi biak.

Bixente Latiegi eta Dunixi Oñatibia arduratu ziran "expediente" antzekoa dan liburua argitaratzeko, euskeraz ta erderaz. Lan eder au egin eben eta salgai ipiñi "Euskaltzaindia, el batua y la muerte del euskera" liburu irakurgarria.

Eta Latiegi bera izan da lanik geien egin dauana Euskerazaintza, Euskeraren Erri Akademia sortzeko eta Erri-Zuduzkotasanaren aldarrikapena ezarteko.

Urteen joanean Kardaberaz Bazkunak beerakada aundia izan eban, baiña oiñordeko da Euskerazaintza indartsu ari da lanean eta aldizkaria be argitaratzen dau izen bardiña dauala.

Euskerazaleak Bizkai'ko erakunde da eta Bilbao'n dau bere etxea, Colon de Larreategi kaleko 14n. atean, 2n. etxe-maillan.

35 urte inguru dira sortu zala, Julio Urkijo, Jesus Oleaga, Montiano, Landajueta eta Abeletxe ta beste batzuk sortzille zirala.

Bost urte inguru igaro ziranean, batzordea barriztatu egin zan, batez be Josu Arenaza osagillearen eragiñez eta gaur arte 30 bat urtean diardugu lanean.

Ekintzak oneik dira: Urteko batzarra, len amabostero eta orain illera batzar arrunta, urteko euskal-astea, eta ipuin-sariketa Bilbao'ko Udalaren laguntzaz, urtero eguneroko orritxua dakarren egutegia eta illero ZER aldizkaria, bizkaieraz dagon aldizkari bakarra Aldundiaren laguntzaz. Aurretik AGUR asterokoa argitaratzen zan.

Erakunde bi onein elburuak oneik dira: Erri-euskerea eta euskalkiak indartu, batez be bizkaieria eta euskerearentzat ain kaltegarria dan atxea alboratu.

Elburu oneik lortzeko lankideak bear doguz eta guztiai, naiz gasteai naiz zar-saridunai dei egiten dautsegu.

**Olazar'tar Martin'ek
Euskerazaintza'ren lendakaria
Euskerazaleak'en lendakari-ordea**

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

SARTAGUDA TA LODOSAKO IKASTOLA BERRIAREN ASTERA

Aurten, Urriko igandian eman zioten asiera ikastola berriari; garrantzi aundiko eguna Erriberako errientzat. Ikastetxe berria orduantxe iriki zuten.

Danok poztu giñen.

Antxen zegoen Xavier Lasheras lendakaria eta gurasoen multzo ederra Roberto Mirandakin asita, baita Karlos Espinosa eta aurren multzo galanta.

Lenengo, ikastetxe onen ikustaldia da guztiz atsegiña.

Danez gain argiaren indarra nabaritzen zan. Emengo ikasleak merezi zuten zerbait egokia egitea. Etxe berri orretan asi dira lanean berrogei ikasle gutxi gora bera, naiko maixu daukate-laguntzeko.

Txistua jo zuten gaztetxoak, baita kantu zarrak ugari. Antxen zeukaten alaitasun garbia.

Beste bi itz eman zizkien aurtxoan ezitzalleak; izate orrek lan ederra

ematen zizkien, euskara abestu, naiko ongi ikusleak artu ta baita artutako zuzenbideak zaindu. Ondasun guzti abek, lore arrigarriak bezela lantzen dituztela.

Eziketa on bat egiteko gela garbiak dituzte ta argia ugari. Ikasleak ezitzallekin batean lana egiten dute.

Gelak zabalik eta erosoak balindituzte, ikastetxe inguruak ikasteko beste zoriontasunaren billa errialde jokabide zoriontsuak izango dire.

Orma argi ta zabal aiek ikusita, berealaxe datorkigu burura: Nola jantzi orma aiek?

Nere aldetik, uste dut, beste zerbaitetik toki oiek oso zoriontsu eta ongi etorriak biurtuko ditula. Oroitzapenak lagun, bi argazki aundi, bat etxe onen edestian ezin duguna aztu. Antxen ikusiko lirake, bata bestearen ondoan,

erriaren indarra, eta bigarren, euskararen maitasuna.

Lenengo arria jarri zuten argazki eder bat dago eta bi alderdi azi onen emaitzan. Antxe ikusiko genuen beti, jokabide onen ondorengoak ikusten ditugu ezin obeak: Bat, eunka guraso alkaturik ta jokabide garbia euskara berritze ori Ebro ibairen ondoan.

A ze eredu betiko. Antxen ikusten ditugu lan eder asko egiñak bañan ikusten diranak, bañan aiek egindako lanak ortxen gelditzen zaizkigu.

Inguruetako errixka txikietatik datorkie ereduak Karkar'etik iru, Andosille'tik sei, San Adriandik bi, Sesma'tik bi, Mendigorrie'tik bat, Alkanadre (Errixka'tik iru). Sartaguda'tik 25, Lodosa'tik 31; Ortzen daukagu Naparroa berriaren azia, antziñeko zontoietan eratua.

GROELANDIAREN EREDUA

Groelandia daukagu ludiko bigarren ugarte andiena, bere luraren buru – aldean dagona. Estado txikientzat daukagu eredu alderdi askotik bi milla kilometro laukoak ditu. Izotzez galdenduz dago, biztanle gutxi ditu, bizitzeko arraia du, baita ere meatzatiak.

Lur azpian orain dela gutxi urrezko – meatz aberatsak aurkitu dituzte. Bein Londres'tik N.Y.'ara (USA) nijoala egatez, eskubialdean oso ondo ikusten zan Itsaso zabal ori antxen zegoen zuri zuri ageri. Eta antxen lur izoztu artan bizi zan gizona.

Groelandia gaur eredu aundi bat da lurreko errialde guztientzat. Aspal-di danestarrak azaldu zuten lurralde ez ezagun au.

Orain dela 50 urte Danes agintariak eman zioten orko erriari buru jabetza, ametsa ta eredu. Aspaldiko garaiko gizonak urte asko daramazkiete or bizitzen eta enda beresiki kideak ditugu. Inuit izenekoak gaur Kanada, Alaska eta Siberia'ko kideak, begi okertuak dituzte ezaugarri.

Dinamarkako agintariak babesten dituzte berexiki eta maitasunez.

Orregatik ez dituzte nai gizon zuriekin nasteak, beren artean azitzen ta zabaltzen baizik.

Orregatik gizon zuriri ez diote uzten an erriak sendotzea, ez die lurralde onetan ezitzen. Nai luke bakarrik bertako semeak zabaldu ta daukaten bizimodua agertzea.

Orregatik ez dituzte uzten giza zuriak ona sortzen.

Gizon zuriarekin beren bizimodua ere bat aldatuko litzake. Danestarrak uste dute giza antse benekoz dala aberastasun bat.

Esberdintasuna babestu bearra ortarako. Beren buru jabetza daukate-la Dinamarka'ko errialdeak ez ditu nastu nai, baizik beren nortasun egiten baita zabaldu. Dinamarkako erriak ba du orrekin gizonaren maitasun ta argia erri txikiak zaintzeko.

Askatasun aundi bat lortu dute Groelandarrek gizarteko gizasemee-kin bai erriaren zaintzea, baita beste lanbidearen ardura dala ta.

1950'garren urtea ezkerotik aurreratu lurreko guztiak baino geiago daukate gaurko gizonaren ondasunen zuzenketa.

Nola bait lurralde orietako gizon-ek betebear berdinak dauzkate-la. Eziketa bertako gizonen eskuetan dago. Danez gain eziketa edo eskola,

beren izkuntza dalata, eziketa guraso beren asaba zarren giroan dago mel-dotua aginteritziatik erabat ebakia daukate elizaren legea, elizak askatasun osoaz ikusi nai dituzte eratuak.

Zuzenketa edo epaimailla nai dute era bat agintaritzan eskutik askatasun onean lanean. Auteskundeek osatzen dituzte udalak askatasun osoan eratuak bateko. Batzorde orokorra ere eraiki nai dute Ugarte guztientzat agintariak lortzen dituzte aolkularieri lana egiteko, batzorde ezindituaren-tzat. Diruaren aldaketa dirua nola moldatu Gobernadoreakin batean zuzendu ugarteko zuzendariakin. Godthaab'en bizi diranekin.

Economía lenengo garaietan Foka'en buru zebilkiten, orain arrantzaren inguruan Bidalgo (Correo) eziketa ere oso osorik beren eskuetan daukate (bai zabaltzen, baita ere kultura berez berritze), oso garrantzi aundiko gauza.

Ementxen daukagu euskaldunen-tzat eredu ederra ta ezin duguna aztu.

-EGIA'REN BORROKA-

Antziñatik datorren gauza da, erromatarrak, etorritzko edo berezko leñuak ekarten eben oituzko batzangotasuna apurtu ebenetik gaurko egunetararte.

Baiña erromatarrak ekarten eben aundikitasunezko guzurra euren sasi-jainkoakaz babestuta, leenengoetako sinismen, indar eta zeaztasun guztiaz bideratuta aurrera eroan egin bear ba eben be, Ludi onetako gizon/emakumeai guzurrezko oiñarriaren alegiñak berezizko legearen aurka, mozkortasunezko asmakerietara bideratzen jakez, eta beti ikaragarritzko porrot, blaustada edo zalapartara, gizartea eurakaz batera ondatuta, menperatzen ibili ziran errietatik ainbeste negar, neke eta zorigaitzar eraginda, beti okerreko bidea zalako.

Edestian zear, olako makiñabat alegin dakigu sortu dirala eta gaur egun ikusi zelako ondorioakaz agertzen garan mundu onetan bakea legez barriztuteko.

Dana dala, andik gaur arte, Mundu onek euki dauzan eta daukozan zuzendariak danak ! menperatzaillak izan dira, berezko erriak eta erritarrak sekula be ez dabezelako kontuan euki, eta ikusten dan lez gaur be bardin agertzen dira, euren aundikerizko gai-zaletasunean "MUNDU ONEN ETORKIZUNERAKO" "(por el destino en lo Universal) dabizen gogamen maltzurak eraginda eta JAINKOA'ren LEGE'en gaiñetik ezarrita.

Eleiza-Katolikuan eta beste erlijioetan bardin sortu zan, badaukielako euren artean elizgizon agintarien alde tik akatzak, eta oso gogorak gaiñera, erlijioak JAINKOA kontuan euki barik eta euki ba eben be, eta laster maltzurkerien besoetan jauzi ziralako, bata-bestien aurkakoak eginda dagoz geienak Kristautasuna ezarri zanetik.

Adibidez, Espainol gotzaiñengandik: "salatu egiten dabe "ERRI BEREZIEN BIDEA "euren arduraren jabeak ez daiten izan, Euskalerriri egiten dautsien antzera, eta gaur asi dan guztiz legez kanpoko eta lotsagabeko gudari isiltasun guztia emonda (Aznar' en agintera dagozelako ?) nai-ta AITA-SANTUAK ain gogor salatu ?. Badaukie bai ! nundik nora euren sinismenak aztertzen asi, "KATOLIKOAK DIRAN CONCILIOS de TOLEDO "tik asita; "DEMOKRACIA INTERNACIONAL CRISTIANAGAZ "sortu dana, agerbide bat bakarrik izan da. Laterriak dabizen indarkerien alde dagozelako, JAINKOA'ren LEGE'tik agertzen jakun berezitasuna alde batera utzita.

Erromatarren ostetik, Europa ontan beintzat, agintarien arloan dana izanda "errege, kaizar-jaun "eta ainbat izen nagusi Eleizaren babesarekin, indarra eta eskubidearen almenak euren eskuetan eukiteko, ERRIAK ta ERRITARRAK kontuan euki gabe eta gaiñera zigorraren keiñuagaz, bai batek espataren meatxuarekin, eta besteak JAINKOA'ren zigortasunagaz, baiña biak! gizartearen

askatasuna murrizten eta giza'ren gorputzak zigortzen, euren sasi-jainkotasunezko asmakeriak goratzeko.

Gaur iñoz baiño geiago, Munduko gizartearen eskubi-deak, berez agertu eta argi geratzen diranak dira, Mundu guztian jakiñaren arloa askoz aundiagoa dalako.

Egoera orrek, gure GAI'tutako-ARIMA'ri,beren "gogoko-gertarian "(comprensión psíquica) asko laguntzen dautso arrazoiaren elburua lortzeko, aurretiko edo leenengo ezaugarriak zeaztasunezko jakintzan gero ta garbiagoak diralako. A ta guzti be, jakintasunean, baliteke beste goragoko mailla batera eldu bearra, Nortasunezko berezitasunean naiko naastuta gabiltzalako DEMOKRAZIA-ON baten bakotzari berea emonaz bakea lortzeko.

Orrek esan nai dauana, giza'ren berezitasunezko eskubideak, gero ta garbiago ikusten dirala, eta argi gaiñera, Mundu onen ekintzarako, gizon/emakumea ez dalako agertu, beste gizon/emakumearen morroia izateko, danok Izadiak daukazan legeen lardarian bizi baiño. Leen, bardiñak garelako eta bigarren, gure gaiñetik "ZEOZER" geiago dagoalako.

Izadi onek daukazan LEGE'ak be.... ezin doguz aldatu bata !. Gure arrokerizko ekintza guztiak, aize-artein ibiltzea lez bardin-antzekoak diralako; nai leergaillu gogorraz ilketa aundiak egin, legearen zentzuak ardura ta lotsagabeko eratarra ibili, bai beste giza-seme guztiak menpetuta euki, denbora gitxi barru aizea lez gauza guztiak euren ordezkio lekuak oster a be beteko dabezelako. Eta edestian zear begituta, gero ta azkarrago lortzen dan gauza da, gure arteko barrikariari ezker, gero ta argiagoa dalako.

Joan gaitezan ikustera ba, gaur Ludi onetan zer gertatzen dan. Eta leenengo begitu bear doguna, Mundu onen gizarteetan ze-eginkizunak izan diran ain jazarraldizko mug-aldiak milloikada jendeen artean aitortzeko.

Leenengo esan bear doguna: Munduko bigarren guda amaitu zanetik, gizarte guztia bildurtuta geratu zala ikusi gendun ondorioaren ondamenagaz.

Bereala oiuzkatu ziran, Mundu onetako giza-semeen izabide guztiak babestu egin bear ziralako DEMOKRAZIA on-baten egikuntzagaz.

Baiña benetako gogamen orrek eskatzen ebana, guztiz erdi-erdikoak, alderdi-gabekoak edo ez-aldekoak izatea zan, Munduaren erri edo Laterritzko jaurlari guztien artean osotuta eta euren gaiñetik, beste antolamendu berezi bat ezarrita, Mundu'ko legearen arrazoi-elburuak babesteko.

O.N.U. (erri-guztien arteko antolamendu nagusia) zan bigarren tentaldian agertu zana, eta guztiak ikusi eben benetako bidea izan zala. Baiña bereala agertu ziran bene-

tako ordezkariaren bidetik, norkerien gogotik ibiltzen ziran alenginduak, dirudun eta xautzailletasunezko bidean antziñatik kokatuta egon ziranak, eta onen indarrak beti egon dira oitura-gabeko indarrean, errien agintaritzaz lortu arte.

Ortik apurtu dira beti mundu onetako eta gizarte guztien ametsak. Eta gaur be, ori da gertatzen dana. Bere-zitasunetik kanpo, bestiak baiño geiago dana asmatzen dabenak, euren legeak ezarri gure dabez, gaur Ameriketaz sortzen dan lez.

Orren aldera, beti elkartzen dira gaia'ren bidez txiroak izan eta baiña ametsetan oso aberatsak diranak, asmakizun bardiñak daukiezelako, eta ez dautse ardura iñungo erri berezizko legean ardurak betetea, euren aberats elburua lortzeko.

Begitu bestela, Munduko bigarren borroka nagusian, nortzuk egon ziran HITLER eta Japoniar menperatzail-fazitzaren alde, nai-ta Franko'k erdikotasuna erakutsi "GUDARI-TALDE URDIÑA" (división azul) Errusia aldera bialdu eben Estalingrado'ri eraso egiteko. Eta Italia'tik asita zenbatu egin leikezan erriak dira.

Estatu Batuak... Munduko bigarren borroka nagusiarren ostein... zelako asmakizunakin agertu ziran ?. Irurogeiko amarkadan Errusiakin guda-otz baten burukatu ziran, nor-geiago izateko, biak, azaleko ikusketararen demokrazian edo gizartearen-konponketarako, bealdean, xautzailletasunezko andikitasun bardiñak euki ebezelako; batak eskomaldetik eta besteak aurkako aldean, ezkerrean esaten jakonean.

Errusia'k, porrot egin eban, guztasunezko asmakuntza ori, denbora gitxian bakarrik iraun leikelako berezitasunaren aurka. Bestea, Amerikarrak, beti erdi-purdika ibili dira, eta orregaitik iraun dau luzeago.

Baiña aberatsen asmakizunetan, andikitasunen egarriak beti bardiñak diralako, denbora guztian gura dabe euren betiko nagusitasuna goi-maillan egon daiten, eta neurri ortan ezin danean, mundu onek daukazan mozkin edo ontasun guztiak euren eskuetan gura dabez euki lotsagabeko edozein eratara.

Nun agertzen da Irak, beren eskuetan Munduan dauan olio-kopuruan bigarrena dana, eta Saddam Hussein (Amerikarraren laguntzaz jaurkintzan ipinia) izaera menperatzail-aberats-fazizta dalako eta erritarrean ainbat astokeritan, ilketa kopuru-aundian eginda daukazelako'en aitzakiagaz, euren babesera joan gura ez dabelako... Irak'eko erriak eta bai berak bere aundikitasunean, nortasun bereziak daukielako..., menperatzailtasunezko indarraren bidez gure dabe lortu Irak'eko olioaren jabetasuna.

Emen agertzen dira Estatu-Batuak oiturazko zeatzasunean ipurdi agirian, eta bai beren mai-azpira joaten diran Laterrien legez-kanpoko agintariak, jausten diran ogi zatiak arrapatzera.

Amerikarren babesera joaten diran Txirotasunezko Laterrien agintariak, Ingelesen aldetik Blair eta Espainol

aldetik Aznar dira. Eta txiroak dirala esaten dautzet, euren guzurrezko Laterrietan, biak ! erdi-ugarte onetan eta euren ugarteetan, berezizko erriak daukiezelako zapaldu-ta. Euren antolamenduko ezker-eskomakoak menperatzailleak izanda.

Orren bildurragaitik joan dira Amerikarren babesera. Onak O.N.U.'ri uko egin dautsolako eta bere aundikeria erakutsi gura daualako Munduan dagon indarkeri nagusiaren bidez, daukien menperatzail txirotasunak iraun dagien.

Baiña batera, Mundu'ko erritar guztiak jazarraldian kaleratu egin dira guda onen astokeriaren aurka, lege guztien aurrean zentzun-bako eta basatia dalako.

Nork irabazten dauan gaurko gerla au, ez dauka ardurarik, egin bear dan kaltea eginda geratuko dalako. Baiña O.N.U.'ren babesera gura daben erri guztiak eta erdizka dabizenak (beste biderik ez dago), oituraren zuertasunezko neurrian jokatzeko ba-dabe basati-ekintza erreik salatuta, Amerikarren azpiko lotsaren margoak agirian geratuko dira, danon begiak euren gainean egongo diralako zalantzaren jazarraildi baten.

Aita-Santua'gandik asita, Munduko giza guztiak guda-basati onen aurka agertu dira, eta ori da BEAR GENDUANA !, "BAKOTZAK BERE ARDURAZKO EGIN-BEARRAK BETETEA" "ortik aurrera danon artean erreztasun aundiagoagaz lortu leikezelako giza-berezitasunaren eskubideak ordezkatzeko eta orko bide-bakarraren ordezkari, danon bakea lortzea.

Euskaldun guztiak eta ez diranak be bai, emen bizi diran guztiak askatasunaren amets-bizian eskubide bardiñak daukaguzelako, benetako eta zuertasunezko alkar-joko baten bideratu bear doguz gure ekintzak, oraindiño alderdi-kidetasunean ezberdintasun aundiak daukaguzelako.

Orregaitik joko orren zeatzasunak bi izan bear dira: bakoitzaren ardurak zeatzasun aundiagaz betetea leena, eta bigarren, danon artean LOTSAGIZUN AUNDIA ibili daitela, billur barik ASKATASUNAREN ELBURUA, zelan doan urreratzen begi garbiakaz ikusi daigun.

Badaukagu LEEDAKARI on bat eta jaurkintza betetan dabenak ordezkari legez garbitasun guztiaz eta zuertasunean ausartasun aundiz jokatzeko dabenak. LOTSAGIZUN AUNDIZ BEGITU DAIGUZAN.

Ez da bear tirorik, danok gorrotoan daukaguzelako, eta gaur konpontzeko ez dalako bear, arrazoiaren bide onetarako.

EUROPA TA MUNDU GUZTIA, BAKEAREN EGARRI DA, ETA GAUR IÑOZ BAIÑO GEIAGO. EKINTZA ORRETAN , EUSKADI'RI IZARRAREN LEKUA EGOKITZEN JAKO.

**ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2.003'an EPAILLA'ren 21'an**

EUSKEREAREN ABOTSAK

Esan daigun ta argi garbi gutzat abotsa edo fonema zer dan: Berba egiteko agotik ateraten dogun otsa edo zaratea da, baiña ots onek aldakuntza asko eukiten dau eta abots lez artzen doguz adierazpena aldatzen dabenak, esaterako “etxea” eta “errea”, titz oneitan bigarren otsa aldatu dogu eta esannaia edo adierazpena aldatu da, orduan fonemak edo abotsak dira, baiña “goxoa” esaten ba’ dogu adierazpena ez da aldatu, orduan ez dira abots bi.

Aztertu daigun orain abotsak non kokatzen diran: Abots bakartiak esan jake antxiñatik bakarrik agozkatzten diranai edo bokalai, eta lagundunak ostera, bakarrik ezin agozkatu leitekezanai edo konsonanteai.

Bakartiak edo bokalak onaelan zeaztuten dira. Eztarriko zabala da a, e sabai-atzekoa erdi itxia da eta sabaiko itxia i, ezpanetako zabala da o eta ezpanetako itxia u.

Zeaztu daiguzan orain lagunduanak eta euren kokalekua ta berezitasunak: Batzuk ezpanetan agozkatzen dira: m,b,p,f; beste batzuk agin-obietan: n,l,r; beste batzuk sabaian: ñ,ll; beste batzuk aginetan: d,t,s; beste batzuk aginobietan: n,l,r; beste batzuk sabaian: ñ,ll; eta azkenez beste batzuk eztarrian: g,k,j.

Baiña toki bakoitxean agozkatzen diranak be beste zeaztasun batzuk daukez eta azaldu daiguzan.

Zurreratuak: iru dira: m,n,ñ. Oneik otsa aterakeran zurrera bialtzen dabe aizea eta orretara ots bereizia sortzen jake. Esan daigun n izenetan sarritan galtzen dala, esaterako kanpana/kanpaia, katena/katea edo Lemo-na/Lemoa, baiña ez ain errez aditzetan: egon, igon, egin... Ñ aspaldion arriskuan dago eta in biurtzen dabe batuza-leak, eta ordenagailuak be kendu nai izan dabe Europa’n gitxi erabilten dalako, baiña ll ta ñ’ren aurrean i ipinten da eta kendu egin bear litzake, i ori ñ ta ll’ren barruan dagoalako. Ez baiña ta oillo, bai baña ta oillo.

Albokoak: l agin-obikoa da eta ll sabaikoa eta oneik oguzteko miñak alboan ikututen daualako albokoak be esaten jake ots berezi ori daukelako.

Dardaradunak: r eta rr dira eta oneik agozkatukeran eragin berezia dauke, dardarea, bat edo bi. Orregaitik deritxe dardaradunak.

Gozoak esaten jake aize-bidea oso-osoan itxi barik esaten diranai eta gogorak bide ori osoan ixten dabenai, esaterako gozoak dira b,d,g, eta gogorak p,t,k. Gozoak, gitxienez bakartien bestean dunduria dauke eta orregaitik esanten jake sonorak edo dunduridunak. Oneik agozkatzten asten garanean beti lenengo dunduria ateraten dogu, ez besteakaz.

Iguziak ego frikatibak: oneik aizeari urtetan izten dau-tsoe eta ez dira zarratuak edo oklusibak. Eztarrian j daukagu, jauna ta Jainkoa itzetan lenengo abotsa, sabaian ez daukagu iguzirik, agiñetan erderazko z izango litzateke baiña euskereak ez dauko eta agin-ezpanetan f da iguzia.

Txistulariak: Berezitasun au agin-obiko s’arena da eta sabaiko tx’rena eta x’rena be bai.

Zeaztasun oneik kontuan artuta eta aspaldion darabilgun abedeari jaraituz, zeaztu daiguzan euskerearen abots edo fonemak:

a-bakartia, eztarrikoa, zabala.

b-lagunduna, ezpanetako, gozoa, dunduriduna.

d-lagunduna, agin-obikoa, gozoa, dunduriduna.

e-bakartia, sabai-atzekoa, erdi-zabala.

f-lagunduna, agin-ezpanetako, iguzia, dunduribakoa.

g-lagunduna, eztarrikoa, gozoa, dunduriduna.

Atxea ez da abotsa eta ainbat lasterren kendu bear da gure abedetik.

i-bakartia, sabaikoa, itxia.

j-lagunduna, eztarrikoa, iguzia, dunduribakoa. (Jauna, Jainkoa)

k-lagunduna, eztarrikoa, gogorra, dunduribakoa.

l-lagunduna, agin-obikoa, iguzia, albokoa, dunduriduna.

ll-lagunduna, sabaikoa, dunduriduna, albokoa.

m-lagunduna, ezpanetako, gozoa, dunduriduna, zurreratu.

n-lagunduna, agin-obikoa, gozoa, dunduriduna, zurreratu.

ñ-lagunduna, sabaikoa, dunduriduna, zurreratu.

o-bakartia, ezpanetako, zabala.

p-lagunduna, ezpanetako, gogorra, dunduribakoa.

r-lagunduna, agin-obikoa, dunduriduna, dardaraduna.

rr-lagunduna, sabaikoa, dunduriduna, dardara bi duna.

s-lagunduna, agin-obikoa, dunduribakoa, txistularia.

t-lagunduna, agin-obikoa, dunduribakoa, gogorra.

tx-lagunduna, sabaikoa, dunduribakoa, gogorra, txistularia.

x-lagunduna, sabaikoa, dunduribakoa, iguzia, txistularia.

y-azpaldion kenduta dago baiña aztertu-bearreko arazoa da.

z-lagunduna, agin-obikoa, dunduribakoa, iguzia, txistularia.

Guztiz 24 dira gure abotsak edo fonemak eta idazteko ikurra be geienak argi dauke. Baiña idazkerarako iru zalantza agertzen jataz: Lenengoa, rr idatzi baiña oba litzake’r gangarduna, baiña irarkoletan eta ordenagailuetan ez da ain erreza izaten lortzea; eta Azkue’k bere iztegina agertzen dauzan eta ts ta tz’ren ordeko diran ikurrak artzea be ondo izango zan, baiña orain itzi daigun arazo ori. Bigarrena J’ren arazoa da, eztarriko abotsarena, jauna ta jainkoa idazteko erabilten da eta Gernika-aldean bai joan esateko be. Zer egin? Beti esan iauna ta iankoa eta beti idatzi j’ gaz?

Ala beti agozgatu eztarriko j lez? Eta irugarrena esan dogun ll ta ñ’ren aurreko i kendu bearra da. i ori izki orrean barruan dago.

Olazar’tar Martin’ek

KARNABALAK

Mozorroak eta dantzak

Euskalerrriak millaka-ta-millaka urte asko ditu eta gaur eguneko edozer arazok sustraiak izaten ditu oso luzeak millaka urteen zear. Karnabalai berdin gertatzen zaie...

Zer da Karnabalen ardatza?

Mozorroz jaztea eta dantzan egitea.

Orra bi gauza Karnabalen sustraietan daudenak. Oiek bakarrik ez dira; baña, oiek biak dira lendabiziko sustraien muturrak.

Gero datoz Ituren'go joaleak, dantzarien anketako txintzarriak.

Ondoren, Aratuzteak (Karnabalen izena Bizkaian)=Car-nes tollendas, latíñez=aragi uzteak eta garizuma.

Azkenik, Udaberria eta Martiko zozomikoteak.

Euskalerrriaren lenengo ikurra, nere ustez, mozorroz jantzitako azti bat da, txistua jotzen.

Nun dago mozorroz jantzitako azti ori?

Trois Freres deritzan leize-zuloan; antxen dago bere marrazkia animalia askoen artean, antxiñako Pirinee mendi euskaldunetan. Leize asko aurkitzen dira gure inguruko mendietan, animalien marrazkiz beteak. Gertue- na Ekain degu. Aurrexego Altxerri, Orioko ibaiaren aurrez-aurre... eta abar.

Animaliak daude bizi ziran bezela; eta antzeko. Arrak dituzte biotz-ondoan zauriak edo azkonak..Zertarako? Animalien irudiak iltzeko. Irudia ilda, basoko animalia ere ilda zegoen.

Ori ez al da majia egitea?

Gaur bertan ere egiten dira orrelakoak; andrakil bat egin eta jostorrazak sartu, okerra egin naiean. Ba, orixe egiten zuten gure aurrekoek orain dala 16.000'tik ezker.

Eiztariak ziran. Jateko aragia mendian zegoen. Ara joan bear arrapatzera. Joan aurretik, ordea, kobazulora bisonte-marrazkiaren aurrean majia egitera, irudia iltze- ra. Uste zuten irudi eta izakiaren artean, indar bat zegoe- la; adurra deitzen zioten.

Eta adur ori sortzeko aalmenak, aztiak zitun. Baña, gizakiari ere egin lezaioke majia eta gizakia, majia egiteko mozorroz jazten zan, animalien itxurak artzeko. Orregaitik, Trois Freresko aztia animaliz jantzi da. Orrela iñork ez dio berari majiarik egingo bere irudia gorde duelako.

Majia-indarra -adurra- sortzeko datoz txistuak eta dantzak.

Orra noraino joan zaizkigun Karnabaletako bi gauza berezienak.

Joaleak eta txintzarriak

Au beste arazo bat da. Euskalduna, urteen poderioz, eiztari izatetik artzai izatera pasa zan. Mendiko animaliak ezi egin zitun eta kortara ekarri. Aragia bear zuenean nai- koa zuen ikullura urbiltzea. Majia egin bearrrik ez zeukan. Goitik zetorren urak eta eguzkiak azten zuen abereak bear zuten belarra. Orduan gora begiratu bear, jainko txiki aiei; espiritu aiei. Baña, espiritu txarrak ere baziran, gaizki- leak, eta uxatzeko joale eta txintzarriak zuten indarra.

Orra zergaitik, 10.000 urte pasata gero, artzaiekin batera agertzen diran joaleak eta dantzarien txintzarriak.

Mozorroz jazten segitzen eben eta dantzan ere bai; baña, gaizkileen kontrako armak bearrezkoak.

Aratusteak eta Karnabalak

Aratusteak, aragi uzteak, Bizkaian Karnabalei deitzen diote eta aragia uztea Garizumari dagokio.

Zer dan Garizuma?

Berrogei eguneko epea da Garizuma. Kristautasunak sortu zuen epe ori gorputza eta espiritua garbitu eta ezi- tzeko. Nola? Aragia utzi eta barau eginda. Europa osoan, kostetatik alde, txerrikia jaten zuten gau eta egun. Orain- dik ere txaltxitxak dira euron janariarik goxoenak. Alaxe daude eder eta koipetsu.

Udaberria datorrenean, gure odolak suspertzean, gari- zuma zan epe egokia odolak meetzeko eta koipeak gañe- tik kentzeko. Berrogei egunez barau eta txerrikiak bazter- tu, orra atleta guztiak egiten dutena forman egoteko.

Kosta-aldean arraiña erreza zan topatzen; baña, barruan arrai gutxi zegoen. Kostatik barru-aldera arraiña eramate- ko, gatza eta ospiña erabiltzen zan. Gaur eguneko kamioie- kin edonora eramaten da arrain freskoa, amar orduetan. Txerrikia, ardikia utzi eta arraiña jan edo barazkiak.

Eta kristau-erriak Garizuma bete egiten zuen. Geuk ere, Seminarioan, gazte giñala, astero iru egun egiten gen- duen barau, bederatzi ordu estudiata gero.

Errioxan apaiz negoela, aragi-uztea zanean, aita Terra- nova'tik etorri berria zan, eta kanpai-joleari konbite egin nion bazkaltzera. Amak legatz ederra ipiñi zigun jateko. Legatza jaten ari generala, onela esan zidan moro-itxurazko kanpai-jole arek:

- Señor Cura así cumple usted la ley de la abstinencia de carnes?
- Estamos comiendo pescado...
- Así hago yo todos los días vigilia!
- Tú cómo lo haces?
- Comiendo un pimientico.

Zozomikoteak

Karnabal, aratuzte eta udaberrikin batera datoz Zozo- mikoteak.

Zer dira Zozomikoteak?

Martxoak Apirillari eskatutako bi egun t'erdia. Zertara- ko? Artzaia, bere ardiak eta aria iltzeko elurraren indarrez. Beraz, negua oraindak ere gurekin da Martxoan izan arren.


Ona Ataunen zer zioten:

*A Apiltxo Apiltxo
Ekatzak egun bi
Eta erditxo
Artzai orri
Kendu iotzan
Eun ardi eta arie
Eta berari
Ezkerreko begie.*

**Anes Arrinda
Deban, martxoak 7.
Urtea 2003.**

PELOTA-JOKUAREN JATORRIA

¿EJIPTO? (LARRAUNDAR BATI ERANTZUNA)



(Larraun Naparo'an dagoan Aran bat da, Lekunberri izeneko erri ederraren inguruan. Bâ larraundar bati erantzunez, idatz-lan au "Diario de Navarra'n" idatzia da Orregaitik doa Naparroa'ko euskeraz. Ta, onen atzetik joango dira gai berari-buruz beste batzuk).

Nere izenaren ondoan agertzen diren zenbakiak, nere urrutizkiñaren zenbakiak dire, irakurleren bat edo batek zerbait galderu nai ba' dit, nora deitu jakin dezan. Ta, nere telefono orren mezu-jasotzaille automatikoan onoko eskari au irakurri aal izen dut gaur, ilbeltzaren 17'an: "Aspaldi ontan Donosti'n bizi naiz beño jatorriz larraundarra naiz. Nik eta nere lagun batzuk, pelota kanpotik etorritako gauze dugun jakin nai giñuke". Pozik eta errez emango dizuet eskatzen didazutenaren berri. Ainzuzen "Naparroa'ko Egunkari onek bere eskuetan arturik bait dauke Pelotaren Edestia.

Asieratik baietz esango dizuet. Baditekeela gure pelotajokua kanpotik etorria izetea. Nere ustez, mundu guzian jokatu bait da pelotaz. Baiña gure Euskalerrri au ere "mundu guzi" orren zati bat delarik, baditekeela emen bertan sortua izetea ere. Orregatik, pelotaz ari galararik, bearrezkoa dugu "pelotaren edestia" eta "euskal-pelotajokuareren" edestia bata besteagandik zintzo bereiztea.

Izenere, -aiñ gauza polita da pelota! Aiñ borobilla! Aiñ egokia jokurako! Emaiezu umeei pelota bat. Berealaxe asiko zaizkizu berarekin jostaketan. Umeek ez ezez, abere beraiek ere atsegiñ aundiz artzen dute pelota. Emaiozu bat txakur bati; edo katuxo bati! Laister asiko zaizkizu auek pelota ori atzaparretan artuta jostaketa bizian. Orregatik mundu guzian eta mende guztietan izen zaigu pelota jostagaillurik maiteena.

Edestiaurre zarrean, ots, leen-preistorian, oialik ez zuten orduango jende aiek. Eizatzen zituzten piztien larrua erabilli oi zuten, oialaren orde, beren bearkizunetarako. Ba, ziur nago ni, gizonezko ta emakumezko aiek larrukiz pelota bat eginda, direla amar milla, ogeimilla, ogeitamar milla urte, leize-zulo batekoek beste leize-zulo batekoen aurka biribiziko partiduak jokatzen zituztela, gero bertsoz beren garaitzak abeztuz. Ezpairik gabe, pelotariak izeteaz gañera, bertsolariak ere bai bait ziren. Lenen maillako bertsolariak!, etnografiak erakusten digunez.

Zori txarrez, jende aiek, naiz primerako margolariak izen, ez zuten oraindik idazketarik sortu, eta ez ziguten testigutza idatzirik utzi. Ezta, pelotari-buruz, margoztutakorik ere. Baziren ba margolari yayoak gure Asaba zar aiek! Aro zaar artan, direla amarmillatik ogeimilla arteko epe luze artan, munduko kulturarik aundiena Euskalerrrian

egon bait zen. Gure leizeetako ormetan ainbeste pizti bikaiñ margozturik utzi zizkiguten gure Asaba trebe aiek ez ziguten pelotari-buruz ezer margoztu.

Alatagutziz, margo-lan bat dugu pelota-jokuari-buruzko aipurik zaarrena, Baiña ez Euskalerrrikoa. kanpokoa baizik, Ejipto'ko Tebas uriko illobi dotore batean aurkitua. Gure leizetako irudiak beño berriagoa. Zarra, ala're!. Direla lau milla, bost milla, urtekoa. Margo orrekin asten da pelota-jokuaren edestia.

Ementxe, bait damaizut bera, so egio gun ba margo polit eta txit garrantzitsu orri. Bertan bederatzi gazte agertzen zaizkigu. Denak emakumezkoak, soñekoek eta burutik zintzilika dituzten tontor luzeek adierazten digutenez. Denek daramazkite txonkatilletan eraztun zabalak. Urrezkoak bearbada. Bederatzi neskon jokua zirimoni sagaratu bat dela bait dirudi.

Erdian, lau neska dakuskigu. Bi, alkarri begira, gerritik aurreruntz okertuta. Beroien gañean, zaldian zalduna bezala zandalatraka beste biak, jokuan. Eskuiñekoak, ezkerrekoak botatzen dion pelota bere bi eskuen artean artzera dijoala dirudi. Erdiko lau neskok bularretatik beera billutzik daudela ematen du. -Billutzik gizakumea, Jainko arras garbiaren aurrean!!! Orregatik dirudi zirimuni ortako pertsonarik garrantzitsuenak beroiek direla.

Bi ertzetako neskek gona luzez jantzirik agertzen zaizkigu. Ezkerreko iru nesketatik, bi, pelota batak besteari jaurtiziz ari dire jolasten, Irugarrena, bera bakarrik, pelotagoruntz boteaz.

Eskubiko ertzean daudenak, berriz, biak kanpora begira, esku-artean gorderik daukaten pelota norbaiti eskeintzen diote noski. Jainkoari ote?

Neska-talde guzti orrek darabilkien jokuari-buruz deus ez dakigu. Ezin esan, beraz, joku orren arauak nolakoak ziren. Denadela, margo au dugu pelotaren edestiko lenen dokumentua. Ta, bertan, mobimentua, batez ere erdiko bi neska "zaldunen" bidez, ederki adieraztera emana dagoela aitortu bearrak gera.

Latiegi'tar Bixente 945 220050.

UDAL-AUTESKUNDEA

Udal-batza Euskalearran

Gure erri, batez be itxas-alderantz dagoana, baserriak osotzen dabe eta asieran, leizetatik urte giñanean, bakar-etxea zan erkunde jatorra eta etxeko jauna agintari bakarra, baiña laugarren edo bostgarren gizaldian, Jesus'en Barri Ona artu genduanean, etxe bakartiak alkartu egin ziran eta auzoak edo kofrafiak artu eban garrantzi aundia, aurrean baseleiza edo ermitea eukela.

1300n.urte-inguruan erriak sortuta daukaguz eta parrokiak be euren eleiza aundiak daukez. Orduan 1000n. urte-inguruan alkartuak dira auzoak udala sortzeko eta parrokiak osotzeko. Aldi orretan asi ziran Bizkai'ko Jau-naren edo Erregearen aginduz billak edo uriak sortzen eta eurretarik asko 1300n. urte-ungurukoak dira.

Erriaren batzarrak, etxeetako jaunak batuta, eleizpean egiten ziran, aurretiaz kanpaia jota eta aurrean kurutzea zala. Oneri kurutze geldia esaten jakon eta eleizbidean erabilten zanari, kurutze jaso.

Batzar ori egiteko idazkaria jartzen zan mai baten. Ori da gaur eleizpe askotan daukagun maia eta erri batzutan, Gamiz'en esaterako, txupetal-arria esaten jako, beste batzutan ostera bagarea, idazkariak "ba-gara?" esan eta etorriak "ba-gara" erantzuten ebelako.

Or agertzen ebazan etxeko jaun bakotxak bere arazoak eta lege-bear-izanak eta ordezkaria bat aukeratzen eben Gernika'ko batzarrera arazoak aurkezteko.

Asikieran oiturak baiño ez ziran, baiña gero, gizaldi bi ezbaridinetan idatzi egin ziran. Orreik eta orreik egiteko eskubidea dira gure lege zarra.

Erri-agintaritzaren oiñarria

Euskaldunentzat lenengo alkartea, len eta gaur, udal-batza da eta udal-batza sotzeko erritarrak dauken eskubidea sarritan kendu gura izan dauskue, ez Franco'k bakarrik, Cadiz'ko korteetan asi eta agintari guztiak baiño,

baiña udal-batzaren indarra betik dator, etxeko jaunetatik, eta ez dauka iñork eskubiderik ori kentzeko. Orra or gaur bizi-bizi daukagun arazoa. Arin esaten dabe udal-batz edo besteko alkatea edo udalkidea kentzeko, baiña ori ipiñi daben erritarren eskubidea da eta eginkizun okerren bat egin dauana alboratzeko eskubidea epailari zuzenak auki daikee, ez iñoz beste alderdi politiku batekoak.

Alderdi politikuak

Antxoña ez egoan alderdi politikurik, baiña bai izan ziran onein antzekoak ziran oiñaztarrak eta ganboatarrak, batia gure erriari ainbeste kalte egin eutsoen Aide Nagusiak be eta oneik alderdi politikuen antzera alkartzen ziran taldeetan euren eritxiak aurrera aterateko.

Gaur alderdi politikuak onartu-bearra daukagu eta onek be kalteak ekarri leikioz gure erriari: Zer egin Euskalerra gorroto daben alderdi batek indarra artzen ba'dau? gure errian lan egin anai daben alderdiai auxe eskatu bear letxikiue: Gure erria dan lakoa, zazpi lurraldeetan dagoana, onartu dagiela eta erria eratzeko benetako demokraziaren bidetik jokatu dagiela.

Eta ori nai ez ba'dabe ez dabe merezi udalkide izatea. Urrengo, benetako demokratak izan bear dogu guztiok, eurak be bai. Eta demokrazia erritarrengan oiñarritzen da eta goragoko legeetan.

Auteskunea dator

Laster dator ateskunde-eguna. Orrillaren 25n. egunean aukeratuko doguz gure errietan alkateak eta zinegotziak, lau urtetarako.

Alegingu gaitez Euskalerra sendotzen eta indartzen, gure jatorria aitzu barik.

Olazar'tar Martin'ek



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

10.- AMARGARREN SALMOA: ANDRA MARIA PROBATUA IZAN ZAN

Jaun-goi - ko Ai - ta mai - te zai -
 tu - gu za - ru lu - rrean E - gi - be - a Jain - ko
 Se - me - a mai - te zai - tu - gu gu - ti -
 on Sa - ba - do - tzei - lle - a Jaun Es - pi - ri - tu San - tu - a
 ze - ra a - lai - ta - sun e - mai - lle - a gu - re
 a - ni - man Se - na - rra se - ra. po - za
 sor - teen lan - gi - lle - a

1

Nai izan zuan Jaunak Maria probatua izatea, bere sasoiko lanak emanaz aintza ugarituztea. Maria zeguan graziaz eta jakinduriaraz betea, baiña penatze ta lana zer zan komeni zan jakitea.

2

Mariak espirituzko begiz Jainkoa ikusten zuan, berekin eta aingeruakin itzak esaten zituan.

Orain Jainkoa gorde zitzaion eta billatzen etzuan, milla aingeru ere an zeuden baiñan ixil ezkutan.

3

Maria jarri zan arrituta zer egin etzekiala, uste baizuan bere deskuidoaz Jainkoa galdu zuala. Maitetasunez eta samiñez billa ibili zan ala, bere samiña nolakoa zan ezin esan leikeala.

4

Esaten zuan: “Nere Jainkoa, Egillea ta jabea. Zu errukitsu betiko zera ta eldu zait illunpea. Auspezturikan lurrean nago ta nai det zuk jeikitzea. O, aingeruak kulparik badet nai det Jaunak barkatzea”.

5

Jainkotasunak itzal egiñik Mariaren bizitzari, ezin urreratu izan ziran etsai danak Mariari. Pentsamentu txar gorrotozkoak bota zizkien berari, ezin zutela esan nai ezin gorrot zien aurrari.

6

Neurririk gabe supritu zuen Marian biotz garbiak, bizitza kentzen egin zituen alegin danak etsaiak. Baiñan txindurrin ortzak bezala autsi zituan arriak, falta txiki bat bakarrik ere etzuan egin Mariak.

7

Apaizak eta bere maistrak deitu zien Mariari, ta esan zien: “Barka eiguzu sinistua neskatzari. Obea dezu aparte bizi errezatuaz Jaunari, zure kontrako pena samiñak izan dituzu ugari”.

8

Gazte Mariak ain umildurik entzun zituan esanak, zion: “Neretzat korrejitzeak ziran zor zitzaizkidanak. Neskatzak dira nere lagunak serbitu nai ditudanak, bestek badira zuen goguak nik beteko ditut danak.

(11) AMAIKAGARREN SALMOA: MARIAN AMA ANA ILTZEN DA

1

Amabi urte zeuzkan Mariak
an bizi zan zerbitzari,
agertu gabe aingeruak au
esan zien Mariari:
“Azken egunak urreratutzen
zaizkio zure amari,
Jainkoak nai du azkena jarri
bere lurreko lanari.”

2

Berri mingarri onek Marian
biotza samindu zuan,
auspezturikan amaren alde
otoitzak egin zituan:
“Nere Jainkoa ezereza naiz
ta Zuk naukazu goguan,
nere amaren anima jarri
Jauna leku seguruan.”

3

Jaunak etzion erantzun baiña
maite zuan esan ura,
aingeruari agindu zien
“Artu Maria kontura,
eta eraman zazue zuek
ama dagoan lekura.
Zuetako bat gelditu emen
Mariaren antz modura.”

4

Aingeruak au ipiñi zuen
bere amaren onduan,
eta Mariak bere amari
mun eman zion eskuan.
Amak bazekin alaban berri
ta Jauna goratu zuan,
Mariak azken bendizioa
eskatu zion orduan.

5

Etzaitez erten Eleizatikan
esposatu bitartean,
apaizen bidez Dabid-tarren bat
senarra artu artean.
Gure ondasunen jabe zera,
bizi pobrei ematean,
artu Jaunaren bendizioa
nerearekin batean.

6

Ama eldu zan eriotzara
izketa goso auetan,

il zan Jaungoiko Egilleakin
Mariaren besoetan;
gorputz santua konpondu zuan
Jaunak zeukan eskuetan;
Alabak itxi zizkan begiak
bere naia zan onetan.

7

Aingeruakin bueltatu zan
beren Erregiña ura,
garbi Maria bere Tenplora,
bizitza zuan lekura.
Amaren falta sentitu zuan
juanik biotzan barrura,
grazi-doaiak zuzendu zuen
pake bizitza santura.

8

Jauna ikusi ezin zuala
Mariak sentitzen zuan,
bere aurreak otoitzak sarri
bero egiten zituan.
Amak bazekin Maria nor zan
baiñan ezer etzekian da
umil konforme zeguan.

12.- AMABIGARREN SALMOA: MAIRA JOSEREKIN ESPOSATUA

1

Jaunak gau batez esana zion
Simeon apaiz jaunari:
“Senar bat eman esposatuta
maite dedan Mariari,
Nazarateko Joakin eta
Ana aien alabari:
nere naia ta oiturak eman
umezurtz ta zarrenari.

2

Apaizak eta letra dun aiek
da erabaki zuena:
Dabiden jatorriko mutillak
bilduak Jerusalemara,
etortzeko danak Eleizara
da eskatu ziotena,
egun onetan amalau urte
Maria zan zitubena.

3

Bearrezkoa zuen berri au
Mariari esatea,
eta Simeon apaiza jua zan
bere naia jakitea
Esana zion: “Nai deguna da
zuk senarra izatea,

Eleizatikan ateratzeko
esposatuta juatea.”

4

Mariak esan zion bildurrez
“Nik izan nai det birjiña,
esposatuen lanetarako
ni naiz oso ezjakiña.
Baiñan Jaunaren naia au bada
nerea dago egiña.”
“Zure antzeko bat izan dedin
otoitz egin alegiña.”

5

Arotz-lanean Jerusalemen
bizi zan Jose santua,
Nazaretoko semea zala
Elizara zan deitua.
Amabi urtez egiña zeukan
“Ni birjin beti” botua;
orain ogeita amairukin, zan
Dabiden jatorrikoa.

6

Makilla legor bana Eleizan
eman zien mutillari,
askotatik bat agertutzeko
eskatu zien Jaunari.
Lore berriak erten zitzaizkan
Josek zeukan makillari,
esposatuta apaizak eman
zian senar Mariari.

7

Maria eta Jose derrak
Eleizan esposatuta,
Jaun Espiritu Santuak beren
biotz garbiak poztuta,
Nazaretera juanak ziraden
ango legok lagunduta,
Mariak zeuzkan etxeak eta
ondasunak jabetuta.

8

Eldu ziraden Nazaretera
Mariana zan etxera,
beren ezagun eta lagunak
juan zitzaizken ikustera,
oitura zuen ezan biotzez
zorion onak ematera;
auekin bete zuen ondo ta
sartu ziran barrunera.

**ALDALUR ETA
IRURETAGOIENA'tar JUSTIÑE
GASTEIZ'KO KLARATARRA**

ANDAGOIA'TAR PASKAL

ANDAGOIA'TAR PASKAL

Euskaldun ospetsu au bide onetik joian Hernan Cortes'egaz edesti-liburuetan agertzeko eta inka'tarren agintariaren aurkitzaille izateko, baiña bere zori txarrak galazo eutson aunditasun ori.

Araba'ko Kuartango'n jaio zan 1495n.urtean eta ospe aundiko sendi batekoa zan. Beste askoren antzera Ameriketara urreratu zan ospearen billa eta dirua eta indarra aurkitu ebazan baiña baita bekaitza ta gorrotoa be ugari.

1514n.urtean joan zan lenengoz Ameriketara, gaur Panama deritxon eta orduan Urrearen Gaztela eritxon lekura. Laguntzaille eban Pedrarias'en gudari bat zan.

19 urtekoa zala eta 24 urte bete arte baso-ibillaldi luzeak egin ebazan, Pedrarias'en laguntzaz eta Balboa lagun ebala Akla'ra eldu zan eta Pedrarias' ek Panama irasi ebanean, lekuko izan zan.

Bere adiñeko 26 urtetik 28'ra Panama'n salerosketan ibilli zan eta irabazi aundiak eta errezak lortu be bai. Gaiñera gizarte-maillan asko igon eban. Panama'ko agitari batzordean errege-ordeko izatera be eldu zan. Eta Isabel Tobar'egaz egin eban lenengo ezkontza. Au Pedrarias' en emaztearen laguntzaillea zan. Onegaz izan eban Juan izeneko seme bat.

1522n. urtean artu ebazan Andagoia'n Panama'ren egoaldean egoan agitari baten barriak. Bere diruaz ordainduta guda egin eutson. Biru lurraldea ikertu eban.

An artu ebazan inkai buruz lenengo barriak.

Inken aurka jokatzeko usteaz bidaldi luzea egin eban baiña ez ain zori onagaz: lar iparrera joan zan, txalupatik jausita erdi illik geratu zan... azkenean inkarik ikusi barik biurtu zan etxera. Gero Pizarro'k eta Almagro'k zori obea izango dabe. Berak emon eutsen onei, gaisorik egoalako, lurak billatzeko baimena. Iru urte bear izan ebazan osatzeko.

1523n. urtean Panama'ra biurtu zanean bere osasuna oso galduta urreratu zan. Bere negozioetan ekin eban eta bertako kentzeil-buru izatea ez eban itzi.

Bare-bare igaro ebazan urte batzuk baiña ez ziran urrin etsaiak eta bekaitzdunak eta beingoan agertu ziran Pedrarias ezkutatu eta Pedro de los Rios agitari jarri zanean: pellikan sarritan, asarreak beti eta 1529n. urtean Andagoia'ren ondasunak baitu ebezenean eta eoaikarien aurrean au salatu ebanen, epailleak gure euskaldunaren alde urten ziran... Dana dala, 1536n urtean Panama'ko epaikariak barriro salatzen dau Andagoia alarguna eta España'ra bialdu eban Indietako Kontzeilluak epaitu egian.

Baiña barriro be biurtu zan Ameriketara eta Gonzalo Pizarro'gaz gudaldi gogor bat izan eban eta barriro zauri barriak artu be bai. Ondoren lez 1548'n. urtean il zan.

Zer esan gizon eta Euskaldun oneri buruz? Aintzaren billa ibilli zala, jazokizun arrigarrien billa ekin ebala, aberastasun errezen zalea zala, baiña beti izan zala gizon arteza eta leiala erregearen aurrean. Ezin itzi gaiñeratu

barik titulorik ederrena: Inditarren alde jokatu ebala beste Euskaldun askok lez.

JOSE KOSME ARETXABALETA

Euskaldunak oso abenturazaleak izan gara beti, bai emen erromatarren gudalosteetan asita, bai Eskorial'ean lan egin eben argiñen eta Kiriño'ren Gaztela mutillen giroan eta azkoz geiago Ameriketarako bideak idegi ziran. Pierre Loti idazle euskaldunak esana da eta ondo esana, Ramontxu'ren konplexua daukagula euskaldunak.

Urugurai'ra gazte euskaldun asko joan ziran ango giroa nekazaritzarena zalako eta onein artean joan zan ain ospetsua dan Aretxabaleta Balparda'tar Jose Kosme irakaslea.

1838n. urtean Ortuella'n jaioa zan eta 1856.n urtean joan zan Uruguai'ra. Uruguai'k 25 urte eroiazan aske eta biztanle gitxikoa zan, geienak oso ez-jakiñak eta aberedunak.

Barri zalea zan gure Kosme eta bertan ikasi eban botikario lan-bidea. Gaiñera andik ebiltzazan jakitunenakaz alkartzen zan rebotika'ko batzarretan. Asko ikasi eban batez be Vilardebo osagilleagandik eta izadi-zale zan Gibert frantziarragandik eta beste jakitun askogandik.

Batez be landare-iztia edo botanika ikasi eban eta entomolojia be bai, mintxiari buruz.

Laster biurtu zan ospetsu eta Europa'ko gizonik jakitunenakaz izan ebazan artu-emonak kartaz: 1893. urtean 8.000 mintxiren barriak bialdu ebazan eta olako askok bere izena daroe gaur.

Landare-iztian be ospetsua izan zan eta 1894. urtean Montebideo'ko Laterri -Museoa sortu eban eta 20 urtean izan zan bera zuzendari.

Bere idaz-lanen artean Flora Uruguai liburu dago: Lau ale dira eta beste bat Kaktazeas deritxona. Au Bizkai'ra datorrela idatzi eban. Aldizkarietan be asko idatzi eban eta Europa'ko jakitunakaz eskutitez izan eban artu-emonak jakingarria da arlo onetan.

Eztabaida askotan izan zan kideko eta XIX gizaldiaren azkenerantz ango Ikastetxe Nagusia'n lenengoz osagille-arloa sartu eban, bere landare iztiko irakasle zala.

Mikroskopioa be eroan eban eta orrelan bakteriolojia-ri buruz laborategi bat sortu al izan eban.

Itzaldi ospetsu batzuk emon ebazan Darwin eta beste jakitun batzui buruz. Ori izan zan aurrera-bide edo eboluzioaren bidean lenengo barria lurralde aretan.

Beti izan eta agertu zan liberal edo askatasun-zale eta bide orretatik indartu eban umeen irakaskintza ta goi-mailakoa lurralde aretan.

Langille aspertu-eziña zan ba, erakunde guztietara sartuta.

Eta lan guztien elburua, bere ingurukoen artean izadi-zaletasuna sartzea zan, solo-lana eta abere-lana sendotzeko eta orrelan biziera egokia zabaltzeko. Ez zan lan erreza!.

Orra or mendigoizale garbi bat Uruguai'n.

OLAZAR'tar Martin'ek

9.- ISLAM'EN ERAGIÑA

Kristiñautzeak bere lan goragarria jarraitu eban sortaldeko aginterriaren azkeneraino. Baiña sartaldean basatiak jakintzara sartzeko bide luzean, Islam agertu jakon arerio lez eta Islam izango da, turkiarren bidez, sortaldeko kristiñau-aginterria zapuztuko dauana. Garrantzi aundia dauka ba Aginterriaren azkenetan orain aztertuko dogun



Kaaba, Meka'ko arri baltz sakratua, odeietatik jausia.

Islam'ek.

Arabia'n sortzen da fede-bide barri au. Antxe bizi ziran IV gizaldira arte arabeak, basamortu-giroan eta banan bizi ziran, enda askotan. Meka zan uri nagusia eta antxe euken kaaba eritxon arri baltza, odeietatik jausia ta gurgarria gizaldietarako, arri sakratu lez artua .

Antxe jaio zan erlejiño barri au sortu eban Mahoma, ikuskariak izaten zalea.

Jaditxa zan beronen emaztea eta au karabanak saltzen ibiltzen zalako, Mahoma be karabana-gizon biurtu zan. Orretan ebillala, Ala'ren deia entzun eban eta Jesus baiño profeta aundiagotzat ikusi eban bere burua. Gabriel goiaingerua eban bitarteko iragarki oneik artzean eta geroago Al Koran eritxon Biblia-antzeko liburuan idatzi ebazan ikuskizun eta iragarki guztiak.

Euren liburu sakratu orretan esondatzen diran gaiak oneik dira: Alkarrari lagundu, limosnea egin, garbikuntzak, otoitza, baraoak eta, bizitza osoan bein gitxienez, Meka'ra joan. Islam itzak "Ala'ren eskuetan bere naia beteteko egotea" esan nai dau.

Meka'n arerioak izan ebazan Mahoma'k eta andik urten eta Medina'ra joan bear izan eban. Urteera oneri "Hejira" esaten dautsoe eta ortik asten dira urteak zenbaten: 622n. urteko uztaillaren 15n. eguna izan zan.

Guda Santua ez da agertzen argi liburu sakratu orretan, baiña bai Islam'eko fedearen alde gudan ilten dana Paraiso'ra doala.

España'n: 711n. urtean sartu ziran España'ra eta Guadalete'ko gudaldia irabazi eutsoen euskaldunen aurka makalduta ara eldu zan Errodrigo bisigotaren gudarosteari. Arabiarrak guztiz 35.000 ziran eta 10 urtetan erdi-ugarte osoa eskuratu eben. Pozik artu ebezan bisigotoen menpe ankeurrean erromatartuta egozan "ispanoak".

711n. urtetik 756. urtera Emir bat eben buru.

756.n urtean I Abderraman'ek Emir-erria askea izaten lortu eban.

911n. urtean Kordoba'ko Kalifa-erria daukagu.

1031n. urtean zatitu egiten da eta taifa-erriak sortu.

Arabiarren erakundea, sortaldeko oiturari jarraituz, teokratikoa da: Errian buru dan Kalifa da erlejiñoaren buru. Olan Persia'n eta Bizantzio'n be.

Euren ekonomiaren oiñarria lurgintza eta ura zabaltzen eta ureztatzen maisuak dira.

Industria-arloan makalak dira eta geien lantzen dabena narrua da.

Salerosketan be onak dira eta ortik dauke itxas-ontzien indarra.

Zientzia-arloan asko aurreratzen dira X gizaldirako eta dana artzen dabe Persia ta Mesopotamia'tik, batez be medikutza. Zori txarrez ez dabe baimenik emoten gorpua zatitzeko eta gauza asko ezin billatu.

Filosofian be onak dira, baiña Grezia'tik artzen dabe dana ta zabaldu.

Matematiketan be aurreratuak ziran eta eurakandik etorri jaku Aljebra, utsa edo zeroa eta guarismuak edo zenbaki-ikurrak.

Izar-iztian eta lutelestian Grezia'ri, batez be Ptolomeo'ri, jarraitzen dautsoe.

Norki ezagunak doguz Aberroes filosofoa, Akino'ko Tomas'ek maixutzat eukana. Abizena osagillea eta alkimia-zaleak. Oneik biziaren elixirra beti gazte izateko, panacea gaiso guztiak osatzeko eta filosofi-arria, dana urre biurtzeko billatzen eben.

Elertian be onak dira, batez be sortaldeko gaiak ekarten: Eurakandik etorri jakuz sortaldeko alegi edo fabulak, baiña ez dira antzerki-zaleak, bai osteria elebarriak idazten. "Milla ta bat gau" da elebarri ezaguna. Barru-miñez-




Medina'ko alminar: Muezin'ek otoitzera deitzeko tokia.

ko olerkia, lirika, asko idazten dabe erri-mailan. Ortik jartxak.

Etxegintzan Bizantzio'ren ikutua nabarrena da: Batzar eta alkar-izketa lekua, otoitz lekua Mezquita da: age asko, batzutan sabaia be bai, aurrean garbikuntza-lekua, barruan aurrean minaretea edo torrera bidea eta emen abesten dau muezin'ak eta mirhab Mekara begira eta or minbar edo itz-tokia eta koran liburua.

Mezquita'rik ezagunenak uri oneitan dagoz: Irak, Kairo, Omar-Jerusalen (emendik igon eban zerura Mahoma'k), Damasko, Tunez'ko Kairuan, Bagdad'eko Samarra, Kairo'ko Ibn Tulun, Cordoba... Arkua perra edo erredura antzekoa da eta iñoz bi alkarren gainean, eta margotsuak, Zaragoza'n, Sebilla'ko Giralda.



Kairo'ko mezkita.

Gaiñera etxe eder eta palazioak be asko daukez, esaterako X gizaldikoa dan Medina Azahara eta XIV-XV gizaldietakoa dan Alhambra.

Illobi ederrak be ba-daukez eta giza irudiak be iñoz bai, baiña gitxi, lan au legez galazo ta egoalako.

Orratz-lanak eta tapizak egiten dira onak eta Buztinlana edo zeramika be asko eta ona dauke.



Orratz-lanak edo tapizak, alfonbrak eta olakoak egiten onak dira arabeak.

Leiarrek edo bidrierak egiten be trebeak dira, batez be Ejipto'n X-XI gizaldietan

Burdin-lana egiten be zaleak dira eta ormak naiz goiak margotzen be bai. Mosaikoak be ugari daukez.

Labur-labur esateko, arlo guztietan daukez ederlanak ugari, baiña arlo askotan sortaldeko beste aginterrien menpe dagoz.

Oneik doguz ba, gaur be bai, kristiñauai nor-geiago sendoa aurkeztu dautsenak eta ainbeste gudatan burrakalari izan doguzanak. Gaurko jokerea eurakaz bat egitea da, Jainko bakarraren sinistea dauken guztiak alkartuta, baiña oso lan gatxa da, eurak kristiñauak baiño geroagokoak eta aundiagoak dirala uste dabelako.



Berun edo kristal-lanak, bidrierak ugari egin ebezan irudian leiarrezko argi-mutil apaindua.

Olazar'tar Martin'ek

EUSKERAREN ARLOAN (3N. SARIA)

Bei-zai egoan, Basondoko landan, Gardatza'ko Txomin eta bide-ertzean egoan ezkerero, eguraztera etozan neskatilla batzuk agertu yakozan beragaz euskeraz berba egin-guraz. Gitxik ekien euskeraz eta ekienak be euskera gaiztoa.

– Arratsalde on, gizona.
– Baita zeuori be. Zer, baserriko arnasa garbia artzen?
– Bai, eta zeu lako euskaldun jator bategaz itz egiteko asmoaz.

– Gu euskara ikasten gabiz –euren artean urtentxuena zanak.

– Nik neuk, ez dakitzuet euskaraz, gero... Ni neu euskaldun jatorra nozue eta neuk ikasi nebana: etxean eta errian ikasi neban erara berba egiten dot.

Eta, eureitariko batek albotik: Nosotros hablamos el batua.

– Zer da el batua ori, neskato? Elbarritua esan gurako dozu.

– Ez, ez, ez: El batua ikasten ari gara.

–Neskatillok, ori ez da euskerea. Betiko geure izkera benetakoa baztertu eta amesetako euskera lorrin eta ganorabakoa ikasten diarduzue. Txakur-amesak itzi eta ikasi egizue, ba, euskera jatorra, ez yatzue tamutuko-ta.

– Agur, ba, gizona. Gogoan izango doguz zeure esanak.

– Bai, agur eta, el batua lorrin ori itzi eta, gogoan izan, erriaren euskerea dogula ikasi bearrekoa, euskera zaarra indarbarritu daiten.

Baserritar aren esanak, buru-austea sortu eutsen, neskatilla areri eta ezta-badan alde eben bidea-zear.

Neskatxa areik alde ebenean, “geure euskera maitea, mezedetako beste kalte egiten diardue, alde guztietatik, gure izakereari ta berbeteari” esan eban berekautan, Txomin'ek: Euskera gaizto egiten daben irakasleak, euskal-senik bagako esatariak eda-bideetan eta, geure bizi guztian euskeraz bizi izan garean benetako euskaldunak baztertu egin gura gabez, txarto itz egiten dogula-ta. Au zoritxarra!

Geurea dogu, ba, benetako euskerea eta ameslari orrean el batua edo elbarritua, dana-dalako ori, ez daiteke gurearen ganetik inoiz be jarri. Utikan olakoen euskera-zaletasuna! Euskera batua barik bateratua bear genduke eta ez amesetako izkera lorrin ori.

Arik urtebetegarrenean, igazko landan bertan egoan, bazkatzen ziarduen beiak zaintzen. Eta, Txomin'eri baiñolako neskatoak agertu yakozan, pozez eta zapartari ingurura.

– Zer, neskatillak, pozezko autuz zatoze. Ikasi dozue euskeraz?

– Bai, gizona. Zeuk esanak gogoan arturik, erriak darabillan benetako euskerea ikastea erabagi genduan. Irakasleaz ezta-baida asko izan genduzan eta aserreturik,

bertan-bera itzi genduan: Bizkaiera irakasten dauan irakasleagana jo genduan. Leelengoan gogortxu izan yakun baña el batuak dabizan atxeak eta alperreko zer guztiak eta eragozpenak itzi genduzanez gero, erriaz ulertuteko bestean ikasi dogu, urte betean, eta pozarren gaukazuz, Txomin. Zer deritxazu?

– Gure izkerari buruz eragozpenik aurkituten dozuenean, etorri onantz eguraz-alditxu bat egiñez, eta pozarren erantzungo dautset zeuon itauneri. Pozik askatuko dautzuedaz dozuezan marapilloak. Bai orixe!

Atsegiñez alde eben, neskatiлок, euskal abesti zaar bat abesten. Txomin bera be poz-pozik geratu izan zan neskato arei egin eutsen mesedea gogoan ebala: “Neskatilla areik egin izan daben aldaketea egin izango ba'lebe gure berbetea ikasi guraz diarduen euskerazaleak, beste txori batek abestuko leuskigu”, esan eban bere kolkorako.

Arik eta amabostera, taiu txarreko gizon bat agertu yakon Txomin'eri, etxaldera, aserrez.

– Zek zakaz taiu orreaz gurera gizona?

– Ni euskára irakúsle nózu; eta, nire ikasléak uxátu égin didázuz...

– Ze kirtenkeri diñostazu, taiu bako ez ezagun orrek?

– Bai. Zuk: Eta, salátu egingo záitut.

– Zareana zareala, ken zakidaz begi-aurretik...

– Nik euskára ásko jákin...

– Nok guzurtau zaitu gizaki bakan ori?

Darabizun itz egiteko ereaz etzara lotsatu be egiten euskera asko dakizula esaten?

Zu lako irakasleak izatea bai ba-dala zoritxarra euskerearentzat.

– Zuek gáizki itz égin.

– Euk egiten dok ik ederto, ganora bako adiñon orrek.

Joadi, agudo, etorri azan bideti, ostantzean... Eta ez agertu, gero, barrero gure etxe-aldera.

Urte betegarrenean barrero agertu yakon bere ikasleak izan zirean neskatiлок lagun ebazala, taiu onez eta pozezko aurpegikereaz.

– Ostera bere ba-zatoz?

– Bai, baiña, oraingoan, eskerrak emoten natortzu, neskato onekaz batera.

Beiñola zuk esanak sakontasunez gozarturik, euskera-autuan oker negoala konturatu egin izan nintzan eta... arrezkero gogor ekin izan dautsat erri-euskerea ikasten. Pozik naukazu, ba, gizona, zeuri eskerrak, lengo txoriburukeriak itxirik, orain, benetako euskaldunakaz berba egiteko bestean ikasi dot, ba, erriaren izkuntzea.

Eskerrak, ba, zuri, gizon jator orri, eragin dauskuzun aldaketarren.

Neskatilla zintzo areik aurrerantzean be Txomin'engana joaten zirean, euskal-arloan eragozpenen bat izaten ebenean.

AURRE-APRAIZ'tar BALENDIN

ABIZENAK

EZKERRA: XI ta XII gizaldian zabal ebillan Gipuzkoan Bizkaian eta Naparroan: Lazkao'ko erritar batek dauko: 1399.

Euskeratik igaro da "ezkerra" erderara, "sinistra" berba latza alboratzeko. Izen-ordea da, ez-izena.

FANO: 1445 Urduliz'en. Latineko Fanum'etik dato-rra diño, toki sakratua. Lopez Mendizabalek, beti lez, abereen bedarlekua dala diño.

FORUA: Latiñeko Forum'etik. Azoka.

FORURIA: Foru edo azoka-lekua. Elantxoben.

FRADUA: 1653'ean agertzen da. Bizkaian ez dakigu zer esan nai dauan.

FUIKA: Fikan agertzen da: 1474. Lopez Mendizabal: Ota-antzeko landara bat.

FULDAIN: Len Pildain. Amezketatik etorria. Leniz'en 1634. Amezkatat batek eukan 1409.

FULLAONDO: Marurin agertzen da: 1671 Bedarlekuaren ondoan esan gura dau.

FURUNDARENA: Naparroatik Gipuzkoara sartu da eta orain Bizkaian dago, antza dagoanez, artzaiñak ekarrita. Furunda izena eukan baten etxea esan nai dau. Orion: 1764.

GABIKA: Gipuzkoatik etorria au be, baiña orain Lekeitio-aldean dabil. "Gabia" oletako maillua da, orduan olea dagon lekua esan nai dau.

Tolosan 1346.

GABILONDO: Onen jatorria be gabia edo oletako maillua izan leiteke, eta "ondo" = alboan.

Eibar'en agertzen da: 1643.

GABIÑA: Orduña-aldekoa da eta Bilbaon agertzen da: 1654.

"Abi" edo arandanoak dagozen lekua da.

GABIRIA: Bergaran egoan abizen au eukan jauntxu baten jauregia. Gipuzkoan eta Araban zabaldu da eta Ameriketara asko. Jatorria "gabi" edo oletako maillua izan leiteke, edo "abi" arandanoak dagozan aldapa edo "iria". Bergaran agertzen da: 1463.

GAINTZA: Gipuzkoakoa da baiña Bizkaiko Zeanurin be ba-dago, Iburguen auzoan. Mendi-gain asko dagon lekua esan nai dau. Mungian be badago.

Zumaian: 1592.

GAINZARAIN: Gain asko dagon lekuko arana esan gura dau. Beasain'en dagoz iru etxe. (1786)

GALARTZA: Gipuzkoan geien eta Bizkaian be asko, zabal dago abizen au.

"Galar" asko dagon lekua da eta galarra otearen antzeko landarea.

Azpeitiako batek dauka: 1319.

GALLAIZTEGI: Azkueren ustez, "galla" goikoa da eta "-aitz-" atxa eta "-tegi" askorena.

1489n. urtean gaiso-etxe bat sortu eban gizonak abizen au eukan, Antzuolan.

GALLASTEGI: Au "Gallaiztegi"ren aldakuntza dala dirudi.

GALATABEITIA: "Gallate" "allo"tik dator, "allo" abere-barrutia da.

Bizkaian: 1766.

GAMBOA: Gipuzkoakoa da, Ganboatarrak sortu ebazana bat. Bizkaian asko zabaldu da, Mungialdean be bai.


"Kanbo"ren antza dauko eta Mitxelena'ren ustez, latiñeko "campus"etik dator. 1620'ean agiri da Bilbaon.

GAMIZ: Araban dauko erritxu batek izen au eta Bizkaian beste batek. Idazle bat dago Araban, antxiñakoa, izen onegaz.

"-ama-" abere-barrutia da eta "-iz" abizenen atzizkia. Aurreko "g-" gero ezarria. Bizkaiko Gamiz'tar bat Albar Iñiguez de Gamiz, Baeza'ko gudan izan zan, 1212 urte inguruan.

Olazar'tar Martin.

OTO ETA POTOTO



OTO ARGINTZAN

Metalurgian krisisa agertzen danean, ez dago lanik sobreañ iñungo bazterretan. Zorioneko krisisa azaldu da eta, itxurazko lanik ezean, jo du Oto'k argintzara.

Ogeita lau bizitza-aldiko etxea egiten diardue. Lana eskatu eta eman. Au zoriona!

Amairugarren solairuan ladrilluak errenkadan jartzen ari zala, orra an beeran, bere txakur txiki narratxa katetik daramala. Pototo pasieran...

Ttoto zistrin arreri Oto'k zion gorrotoa»

Ez zion ba bein txisa egin anketara zukaitza zala-koan...!

– Bai, e...! Oraintxen ikusiko dek!

Artu zuen eskuan ladrillo zaar bat eta zapla! Goitik beera txakurraren burura.

Burua lertu zion.

Pototo'ren aserrea...! Guardia Zibillak artu eta or dijoa eskillere-tan gora Oto'ren billa.

– Au izan da nere txakurra ie daua gizona.

– Ni?

– Bai, zu! Betik ikusi zaitut!

– Bueno... bai ba...

– Zergatik egin dozu ori? (Guardia Zibillak Oto'ri)

– Ara, jauna, txakur gaizto orrek aginka egin nai zidan da...!

GALGA INDARTSUAK

Pototo aberatsak moto aundi bat eroisi dau. Sanglas galant bat. Zazpi zaldi gutxienez. Eta, frenoak berri...!

– Aizak i, Oto, eman nai al dok bueltatxo bat?

– Motorra probatzeko, ala...?

– Ba, moto onek baño freno oberik ez zeukak beste iñork!

– Ain onak baldin-ba-dira...

– Oraintxen ikusiko dok!

Biok eldu diote motoari eta an dijoaz tximistak artuta bidean zear:

– An, kamiño erdian, farol aundi ura ikusten al dok, Oto?

– Bai, ikusten diat.

– Larogei kilometro orduko goaz une onetan eta baitz bost metrora gelditu motorra!

– Ezetz...!

Potoko'k esan bezela, neurriak artuta, bost metrora, motoa geldi.

- Freno arrigarriak!
- Ori ez deek ezer... Oberik ikusiko dok.
- Bai, ote...?
- Bai, orixe!
- Ez dot uste.
- Orain 100 kilometro orduko goaz... An bastartxo artan arbola ikusten al dok...? Iru metrora geldituz?

Bost kilometro inguruan entzungo eben frenoek ezin zuten intziria... Baña, Pototo'k arrazoi: arbola-ipurditik iru metrora... motorra seko?

Badoiaz, berriz be, bidean aurrera... Bide luze-luzea, zuzen-zuzena... Motorra aidean... 120 kilometro orduko.

- Ikusten al dek, Oto, an urrutiko paper txuri ura...?
- Bai, ikusten joat.
- Bi metrora gelditu baietz...!
- Ezetz...!

Bi metro juxtu-juxtu paperera.

Segi bideari...

140 kilometro orduko...

Trenbidea bistan. Trenbide pasoa barrerarik ez... Madril'go expresa txinparta dariola...

- Expresetik bi metrora gelditu baietz...!

Oto'k erantzuteko indarririk ez. Bere begien aurrean Madril'go expresa... Geroz da aundiago... Geroz da gertuago... Mustru ikaragarri baten antzera...

Estutasun aretan, begiak itxi ditu.

Bañan... arpegiko begiak istean... beste bat iriki.

- Ikusten dok, Oto. Metro bakar bat... Zer iruditzen zak?
- Freno onak ditula, baña goazen lenbailen lengo paper txuri aren billa.

MOTO SIDEKARDUNA

Pototo ez zan atzean gelditzeko gizona.

Auzoko Praisku'k berea baño moto aundiagoa erosi ba'zuan, berak moto sidekarduna erosi zuen naiz-eta bigarren eskukoa izan.

Esan eta egin.

Harley motor adar aundiduna aukeratu zuen.

Berri-berria ez zan; baña sidekarra ba eban beintzat eta orrek asko jazten dau motorra.

- Zer, ba? Gu ez al gera iñor, ala?

Arro ebillen gure mutila, gangorra zutunik, bere motomarruekin auzo guztia bere onetik ateratzen...

Arratsaldea zan... Illunabarrean...

Orra or nun dijoan, buelta bat emotera, gure zaldun berri Pototo.

Ez zan zaldun makala! Zazpi zaldien gañean zijoa gure zalduna.

- Oto, etorri nai al dok ibilalditxo bat emotera?
- Boo...
- Sartun sidekarrean. Estreñatzeko daukat.

Sartu da Oto sidekarrean; marru batzuen ondoren, asi da motorra martxan. Kalerik kale doaz errian zear.

Arro doa Pototo, lepoa kurrilloek bezin luze, bere aldamenen Oto, lepondoa gorri, leertu bearrean...

- Zer dok, Oto?
- Emen noala izardi-patsetan.
- Ez du ba bero aundirik egiten...
- Ez, bañan...

Kilometro bat egingo eben.

Oto leertzeko zorian... Begiak zerura begira, larri... ito bearrean:

– Pototo, mesedez, gelditu eta laga ni ementxe bertan, leertu baño leen.

- Leertu? Ez al zoaz ba eserita patxara ederrean?!
- Eserita...! Patxaran...!

– Bai, gizona, sidekarra eserita joatekoa dok; ori be ez dakik ala?

– Eserita joateko...? Nik usten neban korrikalariak entrenatzeko zala.

– Ni burutik? Bai, bai... Ez al dok ikusten sidekar au azpitik utsik dagoela?

- Utsik?! Eneee... Ta?

– Zera... Korrika egin bear iri segitzeko.

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

BBK

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²